

❖ Pasa itzazu iraganera “egon” aditza:

- 1.- Ni ez **nago** ikasgelan.
- 2.- Maite etxean **dago**.
- 3.- Ane eta biok sukaldean **gaude**.
- 4.- Zu ez **zaude** liburutegian.
- 5.- Zuek ohean **zaudete**.
- 6.- Itziar eta ni ez **gaude** baratzean.
- 7.- Mila eta Ander geltokian **daude**.
- 8.- Zu ez **zaude** mendian.
- 9.- Ni Gernikan **nago**.
- 10.- Zuek ez **zaudete** jolaslekuan.
- 11.- Aitona-amonak enparantzan **daude**.
- 12.- Bego eta biok ez **gaude** basoan.
- 13.- Zu harategian **zaude**.
- 14.- Ni ez **nago** lorategian.
- 15.- Abokatua bulegoan **dago**.
- 16.- Jon eta zu ez **zaudete** baserrian.
- 17.- Zure ahizpa eta ni jaigelan **gaude**.
- 18.- Gure ama ez **dago** azokan.
- 19.- Joseba eta zu zelaian **zaudete**.
- 20.- Zuen semeak ez **daude** atarian.
- 21.- Ni auzategian **nago**.
- 22.- Zuek ez **zaudete** hondartzan.
- 23.- Gu ikastetxean **gaude**.
- 24.- Alkatea ez **dago** udaletxean.
- 25.- Miren eta zu egongelan **zaudete**.